

Nautika eta Itsas Garraioko Gradua

Euskal Herriak **itsas tradizio luzea** du, eta gure kultura estu lotuta dago itsasoarekin. Pertsonen eta salgaien garraioak bultzada eman dio gure herriaren gizarte eta ekonomia garapenari. Itsasoari begira bizi izan gara eta bizi gara.

Gaur egun, **salgaien itsas garraioak** funtsezkoa izaten jarraitzen du. Nolanahi ere, beste aprobetxamendu batzuk ere sortu dira, turismoari eta kirolari lotuta, adibidez. Horrek itsas misterioak argitu eta ezagutza zientifiko-teknikoak menperatzen dituzten profesionalak eskatzen ditu.

Nautika eta Itsas Garraioko Graduaren bidez, **itsasketarekin eta itsas garraioarekin lotutako prestakuntza** jaso eta hainbat gai landuko dituzu: astronomia, meteorologia, itsasketa radar bidez, eta merkantzien zamaketa eta manipulazioa.

Azken mailan, nahitaez egin beharko dituzu 3 hilabeteko **praktikak** itsasontzian edo 600 ordu lehorrean enpresetako praktketan. **Azterketa medikoa egin beharko duzu Itsasoko Gizarte Institutuaren osasun zerbitzuetan.**

Gradua amaitzean, **Merkataritza Ontzidiko bigarren mailako pilotu** izateko, 12 hilabeteko praktikak egin beharko dituzu ikasle modura itsasontzian, eta Merkataritza Ontzidiko kapitain titulu profesionala lortzeko, **Ingeniaritza Nautikoa eta Itsas Garraioa Masterra** egin beharko duzu.

Eskainitako plazak

60 plaza.

Gutxieneko nota

5 ezohiko deialdian.

Irakaskuntza mota

Ikasgelako Gradua

Hizkuntzak

Euskara, Gaztelania, Ingelesa.

- **OHARRA:** Titulazio honetako irakasgai guztiak ez dira hizkuntza guztietan ematen. Informazio gehiago nahi baduzu kontsultatu ikasketa-plana.

Kualifikazio-maila

Titulu honek Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko (MECES) 2. maila du aitorturik; maila hori Kualifikazioen Europako Esparruko (EQF) 6. mailaren parekoa da, urtarrilaren 23ko 22/2015 Errege Dekretuak jasotzen duenez (BOE 2015/02/07).